Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Eskisabel Arin

Ataun, Gipuzkoa (1930)

Aurkibidea

Biografia

Artaditxulo baserrian jaioa, San Gregorio auzoan. Gurasoak bertakoak zituen. Zortzi senidetan hirugarrena. San Gregorioko eskolan ibili zen, eta baita Iruñean ere, fraide salesiarrekin. Migel gaztetatik hasi zen etxeko negozioan lanean: aitak, Bixente Eskisabelek, airetiko kableak jartzen zituen. Bi kable mota prestatzen zituzten: belarra zelaitik baserrira garraiatzeko kablea, Ataunen oso erabilia, eta mendiko kablea, egurra jaisteko. Hainbat tokitan jarri zituzten mendiko kableak, Nafarroan batez ere, baina baita atzerrian ere. Victoria Eugenia erreginaren arreta ere piztu zuen sistema horrek. Elkarrizketan Xabier Eskisabel iloba ere egon da.

Zintak

ATA-013

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2011-04-28
- **Iraupena**: 81 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Aita garraiorako kableak ipintzen

- **Erref**: ATA-013/003
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:03:24. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Aita Nafarroan ibiltzen zen kableak muntatzen, Iratitik egurra jeisteko, Iruñeako enpresa handi batentzat. Aita gaztetan hasi zen eta bera ere bai. Ataunen jartzen zituen kablerik gehienak, belarra jeisteko.

2. Belarra jeisteko kable sistema nolakoa zen

- **Erref**: ATA-013/004
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:08:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Belarra jeisteko kableek zortzi milimetroko diametroa izaten zuten. Luzera, behar zutena izaten zuten. Belarrarentzat erabiltzen zuten Ataunen, zelaietatik baserrietara eramateko. Karga bi sokarekin lotu, txirrikara kateatu eta hala jeisten zuten belarra. Beheko aldean motorra ipintzen zioten, bi bolante ere bai.

3. Kable sistema nolakoa zen

- **Erref**: ATA-013/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:08:37. **Bukatu**: 00:10:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Belarrarentzat kable bakarra erabiltzen zen. Soka eta txirrika izaten zituen kableak kateatuta. Astoekin eramaten zituzten txirrikak-eta gora. Motorrak kablea mugiarazten zuen. Gurdian kableak eramaten zituzten.

4. Mendiko egurretarako kable sistema nolakoa zen

- **Erref**: ATA-013/006
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:10:52. **Bukatu**: 00:14:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Mendiko kableak nolakoak ziren azaltzen du. Lau kable izaten ziren, eta beste bat bolanteetan ibiltzen zena. Haiei ere motorra jartzen zieten. Egurra bi katerekin lotzen zuten, zintzilikatzeko. Egurra kargatzen hiru lagun inguru egoten ziren.

5. Egurretik alkohola eskuratzen zuten

- **Erref**: ATA-013/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:14:03. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Nafarroako lantegiak » Zangozaldeko lantegiak

Laburpena:
Menditik egurra jeitsitakoan, kamioira kargatzen zuten. Uztarrozeko Irati lantegira eramante zuen egurra kamioiak. Alkohola eskuratzen zuten egurretik eta ondoren, sutarako erabiltzen zen.

6. Kableak zatika ipini eta elkarri lotu

- **Erref**: ATA-013/011
- **Iraupena**: 0:04:17. **Hasi**: 00:21:51. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Kableak mandoarekin jasotzen zituzten gora. Zatika jasotzen zituzten kableak eta gero zatiak elkarri lotzen zizkieten. Puntak barrura sartzen zituzten.

7. Ataungo baserri ia denetan kablea

- **Erref**: ATA-013/012
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:26:08. **Bukatu**: 00:29:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Belarretako kableak goitik behera jartzen zituzten. Frenorik ez zuten izaten. Kablea han geratzen zen, behin jarritakoan. Baserri ia denetan zegoen kablea Ataunen. Kargak goitik behera eramateko balio zuten kableek.

8. Ekaitza bazen, kableekin ibiltzea arriskutsua zen

- **Erref**: ATA-013/014
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:32:20. **Bukatu**: 00:34:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Tximistekin arriskua izaten zuten. Behin gertatu zitzaiona kontatzen du. Kableak altzairuzkoak izaten ziren eta nonbait ekaitza bazen, nabaritu egiten zuten. Ekaitza bazen eta belarretan bazebiltzan, etxera joaten ziren.

9. Victoria Eugenia erreginari kable sistema gustatu

- **Erref**: ATA-013/018

- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:40:31. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Victoria Eugenia erreginak aitagatik galdetu zuen, kableen sistemarekin liluratuta. Aita Sevillara joan zen baina ez zuen ezer muntatzeko aukerarik ikusi.

10. Mendiko kableak jartzeko prozesua

- **Erref**: ATA-013/022
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:47:13. **Bukatu**: 00:50:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Mendiko kableak jartzeko prozesua azaltzen du. Mandoen gainean kableak igotzen zituzten. Kableak ireki eta ondoren elkarri lotzen zizkieten. Gero, puntak barrura sartzen zituzten. Azkenik, sistema martxan jartzen zuten. Bolantearekin manejatzen zuten.

11. Lana egunero eta lotarako txabolak

- **Erref**: ATA-013/023
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:50:29. **Bukatu**: 00:53:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Lana egunero egiten zutela dio, jaietan ere bai. Mezetara joaterik ez zuten izaten. Nafarroan lau edo bost tokitan izaten zituzten kableak ipinita. Lotarako egurrezko txabolak izaten zituzten.

12. Kotxea gasogenoarekin

- **Erref**: ATA-013/028
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 01:01:57. **Bukatu**: 01:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Ez dauka gogoan bere kotxearen marka. Gasogenoarekin zebilen kotxea

zeukan. Ikatza izaten zuen leku batean eta su ematen zitzaion beste aldean. Funtzionamendua azaltzen du. Mendiko kableen motorrak gasolinarekin ibiltzen ziren. Ataunen kotxe bakarra aitak zeukan.

13. Etxerainoko porlanezko bidea, etxekoek egina

- **Erref**: ATA-013/029
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 01:05:50. **Bukatu**: 01:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Autoentzako bideak txarrak zirela dio. Baserritik bidera hirurehun metro inguru zeuden. Etxerainoko errepidea etxekoek beraiek egin zuten. Porlana erabili zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com